

SAN JUAN JAIEN HASIERAKO TXUPINAZOA BOTATZEKO PROPOSAMENAK EGIN AHAL IZATEKO KONTUAN HARTZEKO IRIZPIDEAK

Sanjuanei hasiera emateko Udaletxeko balkoitik botatzen den suziria edo txupinazoa nork edo nortzuk botako duten hautaketa egiteko indarrean dauden irizpideei jarraituz, hautaketa prozedura bi pausotan egingo da:

Lehena: PROPOSAMEN IREKIA: edozein herritarrek edo taldek egin dezakeena.

- a) Proposatuko den pertsona edo elkarteak hauetako baldintza bat edo gehiago bete behar ditu.
 1. Oraingo edo lehengoko Sanjuanen inguruan inplikazio nabarmena izatea: sustatzaile moduan, programako parte-hartzaile izanik, ekintza aurrera ateratzeko lanean arituz, zabalkunde lana eginaz, azterketa edo proposamen tradizionalak edo berritzaileak eginaz...
 2. Andoingo jaien inguruan lan nabarmena egitea edo egin izana sustatzaile, parte-hartzaile, hedatzaile moduan
 3. Herriko kultur bizitzako sustatzaile izatea edo parte-hartzailetza nabarmena izatea
 4. Herrigintzan, alor desberdinetan, sustatzaile edo parte-hartzailea izatea (hezkuntzan, berdintasunean, gizartekintzan, kirolan...)
 5. Andoingo izena eta izanaren hedatzaile lana egindakoa, zuzenean ala zeharka
- b) Aurkezten diren proposamenak ondo argudiatuta egon behar dute eta irizpidetan ezarritako baldintzen bat edo gehiago idatzi beharko dira. Ez dira onartuko argudiorik gabeko proposamenak.
- c) Ez dira proposatuko edo, proposatuko balira, ez dira onartuko:
 - c.1. 18 urtetik beherako pertsonak
 - c.2. Talde politikoak edo sindikalak
 - c.3. Jarrera sexista erakutsi edota berdintasunaren arloan arazoak edo oztopoak jartzen dituzten pertsona edo elkarteak

Proposamenak **martxoaren 15etik apirilaren 12ra** arte aurkeztuko dira Bastero kulturgunean, Atarian edo Ambrosia Olabide zentroan edo udaleko webgunean www.andoain.eus egongo den formularioa osatuz.

Bigarrena: JAI BATZORDEA osatzen duten taldeek egingo duten bozketa.

- a) Proposamen irekien emaitza Jai Batzordea osatzen duten kultur elkarteei (kirol elkarte eta kulturalak, gastronomikoak eta alderdi politikoak) bidaliko zaie, eta batzordea osatzen duten talde horiek, **apirilaren 22a arte** izango dute epea zerrendako hiru hautagai bozkatzeko 5, 3 eta 1 puntuekin. Bozketa Bastero kulturgunean edo kultura@andoain.eus posta elektronikora bidali ahal izango da.
- b) Talde bakoitzak bozka bat izango du eta guztiek emandako puntuaketaren batuketak emango du txupinazoa botako duenaren IZENDAPENA.
- c) Talde batek egingo du bere taldea bozkatu.

Andoainen, 2024ko martxoan